



Iñaki Salvador musikaria eta Mari Sol Bastida, Igeldoko Buenavista jatetxeko terrazan, akazia arbola sendo baten azpian. JON URBE/ARGAZKI PRESS

'Gernika'-k solasean

(REMIX BERRIA)

Mikel Laboaren pieza enblematikoaren bi bertsioren puskak lotuz eta tartekatuz ondu dute 'Gernika (1937-2012)' obra berria

Mari Sol Bastidaren ekimenez sortu dute, eta BERRIAK plazaratuko du, hilaren 26an

Gorka Erostarbe Donostia

Azken hilabeteetan ez zuen gitarra jotzeko indarrik. Ahuldadeak jota zegoen. Baina, ordura arte ez bezala, bere disko eta kantu zaharrak entzuten zituen etxean. Hala gogoratzen du Mari Sol Bastida alargunak. «Bere kantu guztiak zituen maiteak, baina *Lekeitioak* bereziki maite zituen, eta *Gernika*-rekin hunkitu egiten zen, negar egiteraino». *Gernika*-k «karga berezia» zuen Mikel Laboarentzat (1934-2008). 1936ko irailean, 2 urte zituela, Lekeitiora mudatu zen Donostiatik, amarekin eta anai-arebeekin batera, aita Bordelen erbesteratu ondotik. Béderatzi hilabetez izan zen han. «Hiru urte

bete gabe zituenean izan zen Gernikako bonbardaketa. Oroitzapenak errealeak diren ala kontatuta-kotik sortuak ez da jakiten sarri. Baina berak oso argi esaten zuen hegazkinen zarata gogoratzen zuela». *Lekeitioen* eta *Gernika*-ren hazia oroitzapen horietan zegoen.

Senarra zuenarekin hainbeste une igarotako leku berean atzeraurrera dabil Mari Sol Bastida, urduri, zigarretari kea ateraz: Igeldoko Buenavista jatetxeko terrazan, Donostian. Haren garunak irudikatatu eta bilbaturiko egitasmoa gauzatu da, eta artega dago haren berri zehatz emateko eta zein harriera izango duen ikusteko.

Bastidarena izan da Laboaren

Gernika piezaren bi bertsioren grabatuen puskak hautatuz eta lotuz pieza berri bat sortzeko ideia; hezurramitu da egitasmoa, eta *Gernika (1937-2012)* dauka izenburutzat. Elkarrek eta BERRIAK plazaratuko dute, elkarlanean, hilaren 26an, bonbardaketaren urtemuga egunean.

Urduri dago Bastida. Ondo gogoratu nahi ditu xehetasun guztiak, egunak, lekuak eta abarrak. Baina gazteagoa den edozeini zail zaion zehaztasunarekin lan egiten dio oroimenak. Ondo asko gogoratzen du, esaterako, Laboak 1972an estreinatu zuela bere *Gernika* zuzenean, Gernikan bertan. «Gero, 1970eko hamarkadan mila aldiz kantatu zuen. Ez zen erraza kantatzeko, baina askotan kantatu zuen». 1987an, bonbardaketaren 50. urteurrena zela eta, Gernikan kontzertu berezi bat antolatu zuten, apirilaren 25ean. «Gaueko hamabietan bere *Gernika* kanta zezan eskatu zioten. Ederra izan zen, oso. Hunkigarria. Ez bakarrik haren eta musikariaren emanaldirengatik, baita Zumetaren

txoriak proiektatu zituztelako agertokian ere, lehen *Ikimilikiliklik* ikuskarian egiten zuten moduan, eta, gainera, publikoaren zati handi batek koru bat-bateko bat osatu zuelako». Emanaldi haren grabaketa on bat ez izateak penatzen du Bastida.

↓ 'Gernika (1937-2012)'

BI BERTSIOEN ARTEKO ELKARRIZKETA

■ **Lehen bertsiotza:** 1974an grabatua. Ahotsa eta gitarra: Mikel Laboa.

■ **Bigarren bertsiotza:** 1999an zuzenean grabatua. Orkestratza: Carlos Puig.

■ **Idea eta errealizazioa:** Mari Sol Bastida, Iñaki Salvador, Josetxo Silguero, Jean Phocas, J.L. Agote, Josebe Ormazuri eta Elkar.

■ **Argitarapena:** Apirilaren 26an, BERRIA egunkariaren bidez, 2 euro gehiago ordainduta.

Gernika aurreneko aldiz 1974an grabatu zuen Laboak, *Bat-Hiru* lanerako (Herri Gogoa / Edigsa). 1976an bigarren aldiz grabatu zuen, Suediako telebista kate baten eskariz. «Oso baliabide xumeekin egin zuten grabaketa hori, baina guretzat oso kutuna da. Suediako telebista kate bat etorri zen, frankismoaren kontrako kantuen inguruko dokumental bat egitera. Kataluniatik jarri zituzten harremanetan Mikelekin, eta *Gernika* kantatzeko eskatu zioten. Gernikako Ikastolako haurrek marrazkiak egin zituzten dokumental horretarako, eta gero galdetzen ziguten ea Zumetaren marrazkiak ziren. Oso bixia da». Ezzen hitz sarririk gizona Laboa, baina ordukoan oso ondo azaldu zien suediarrei pieza haren esangura, Bastidak gogoratzen duenez. 1988an beste behin grabatu zuen lehen bertsiotza.

Ez du etenik haren oroimenak. 90eko hamarkadako emanaldietan *Gernika* jotzen zutela akorduan du, eta 1999an bertsiotza sinfonikoa grabatu zutela Euskal He-

40 Harkaitz Zubirik krisi pertsonaletan trabatuta daudenei buruz idatzi du 'Etxekalte' nobelan

42 Maru Solores zinemagile donostiarrak 'Camera Obscura' lehen filma estreinatuko du gaur

Gernikako bonbardaketaren 75. urtemuga →

rriko Gazte Orkestrarekin eta Donostiako Orfeoiarekin Hamabostaldien barruan, orduko zuzendari Jose Antonio Etxenikeren ekimenez. Iñaki Salvador alboan du Buenavistako terrazan, urte luzez Laboaren musikari taldeko kide izandakoa eta familiaren adiskide handia. Hari begiratu dio grabaketa haren inguruko oroitzean: «Kontzertu zaila eta luzea izan zen. Orduan estreinatu eta grabatu zuten *Gernika* sinfonikoa». Carlos Puigek egin zuen orkestrazioa, Laboak berak enkargaturik. Anjel Katarainek grabaketa «txukun» bat egin



Gernika gerraren aurkako sinbolo moral bat da, eta egun inoiz bezainbat behar dugu»

MARI SOL BASTIDA

'Gernika (1937-2012)' lanaren sustatzailea

«Bertsio sinfonikoak oso ondo jasotzen du jatorrizkoaren arima, eta ondo ezkontzen dira»

IÑAKI SALVADOR

Musikaria

zuen, eta horrela plazaratu zuen *Gernika II* zuzenean izeneko lana.

Gernika-ren ibilbide guztia kontuan hartuta, Gernikaren bonbardaketaren 75. urtemuga gainean zela jabetuta eta Laboarentzat berarentzat pieza hori «oso berezia» zela jakinda, iazko udan ideia bat buruan iltzatzen hasi zitzaion Bastidari. «*Gernika*-ren bi bertsioen artean elkarrizketa bat planteatzea zen asmoa; *remix* bat egitea nolabait». Bertsio bateko zein besteko puskak «aukeratu» zituen, «ordenatu» ondoren, «oso baliabide gutxirekin»... Eta arazo nagusi batekin tupust egin zuen. «Zati desberdin horiek nola lotu». Langintza horretan apur bat «etsitzen» hasia zenean, Iñaki Salvadorren ekarpena iritsi zen, arlo teknikoarekin lotua zegoena. Lehen hautaketa eta pusken ezkontza «oso artisaueran» egin zuen Bastidak. Lanke-

taren zati horri «garrantzi handikoa» irizten dio Salvadorrek: «Lehen ere erabaki eta ideia handiez Mikel eta Mari Sol arduratzen ziren, ideia estetiko eta etiko handiak haienak ziren, eta guk ekarpen txikiak egiten genituen. Oraingoan ere, horrela izan da», dio, irribarre zabala ahoan duela, bi piezetako puskak lotzeko lan teknikoa ordenagailuaren laguntzaz egin duenak.

Kaos zirudiena eta ez dena

Itxura batean «ideia kaotiko samarra» zirudienak gorputz koherentea hartu du, Salvadorren hitzetan. «Hasieran beldurtu egin nintzen. Bi bertsioak oso desberdinak dira. Batetik, denboran oso aldenduak, eta, bestetik, izaeraz ere oso desberdinak. Lehena biluzia da: Mikelen ahotsa eta gitarra soila; oso hunkigarria. Bigarrena, orkestraz eta koruz jantzia, borbildua. Baina, ariketa egiten joan ahala, ezustekoa jaso genuen. Konturatu ginen Carlos Puigek bertsio sinfonikoak oso ondo jaso zuela jatorrizko bertsioaren arima, eta ondo ezkontzen dira».

Hiru urte pasatxo dira Mikel Laboa zendu zela. Hala ere, hitzetan ez ezik, begiradan ere presente dute nola Bastidak hala Salvadorrek. «Hor dago modu etereo batean», dio Bastidak, eurek hain gustukoa zuten akazia arbolari begira. Salvadorrek uste du Laboak bertsio berria ere gustukoa izango zuela. «Bat egiten du guztiz Mikelen espirituarekin; tradizioetik abiatuz aurrera egiteko nahiarekin, ikertzeko eta esperimendatzeko apetarekin. Mari Solek oso ondo harrapatu du asmo hori». Laboari buruz solastatzean ere, maitasunaz eta malenkonia goxoaz gain, umorea eta aurrera egiteko gogo nabari zaie biei ala biei.

Aurrera egiteko modua da *Gernika (1937-2012)*. «Gernika gerraren aurkako sinbolo moral bat da», Bastidaren iritzian, eta «gaur egun, inoiz bezainbat behar dugu gerraren aurkako mezurik». Akazia azpitik Kantauri itsasoari begira geratu da, lehen ere sarri egiten zuen moduan.

Iñaki Salvadorrek gidaturiko ikus-entzunezkoa Eibarren eta Gernikan

→ Hilaren 26an plazaratuko den lana izango da Eibarren (hilaren 27an) eta Gernikan (hilaren 29an) egingo den ikus-entzunezko emanaldiaren ardatzetako bat. Bi herrietako udaletxeko hormetan argi irudiak proiektatzen dituzten bitartean, sortu berri den obra entzun ahal izango da, eta Iñaki Salvadorrek berak aurrez pianoarekin sei bat minutuko pieza joko du, ondorengoaren zubi-lana egiteko. Eibarko eta Gernikako bonbardaketak gogoratu nahi dituzte ikusizun horren bidez. *Itxaropena* izena eman diote ikusizunari, eta 20 minutu inguru irauten du. Bestalde, Donostiako Giza Eskubideen Zinema Jaialdian Angel Maria Sandimassen *Gernika* animaziozko dokumentala emango dute hilaren 26an. Jose Luis Zumetaren lanak eta Mikel Laboaren musika ikusi eta entzun litezke lan horretan.



Hiru lagun ari dira *Gernika* margotzen Gernikako Foru plazan. IZARO MENDIETA

Euskal Herriaren izatearen aldeko mezua zabaltzen hasi da koloretako txoria

Gernika 1937-2012 taldekoek atzo ekin zioten bonbardaketaren urteurreneko egitarauari, 'Gernika' margotuz

Izaro Mendieta Gernika
 ● Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko Hitza

Duela 75 urte Gernikako zerua zeharkatu eta herria suntsitu zuten hegazkinen orde, «Euskal Herriari eta euskal herritarrei dagozkien eskubideak» aldarrikatzen dituen txori koloretuaren alde egin du Gernika 1937-2012 taldeak. Koloretako txori horrek «Euskal Herriaren aitopenearen, existentziaren eta etorkizunaren alde» egiten duela nabarmendu dute taldeko kideek.

Apustu horri helduta, *Bakea, askatasuna, Autodeterminazioa* lelopean prestatutako egitaraua hasi zuen atzo Gernika 1937-2012 taldeak, Foru plazan. Euri zaparrada indartsuak ez ziren oztopo izan Gernika-Lumo «Euskal Herriko erabakitze eskubidearen aldeko hiriburua eta bozgorailua bilakatzea» helburu duten jarduerak hasteko. Hala, aterpean

egin zuten hasiera ekitaldia, atzean *Gernika* marrazten ari ziren bitartean. Joserra Unanue artista gipuzkoarrarekin batera, Maialen Muruetagoieta eta Markel Urrutia gernikarrak *Gernika* margotzen hasi ziren atzo Foru plazan. Gernikako bonbardaketaren argazkia irudikatzen hasi dira artistak. Aurrealdean emakume bat eta haren bi alabak ageri dira, bonbetatik ihesean. Goialdean, ostera, *Autodeterminazioarantz* leloa idatzi zuten. Margolana biharko prest izatea espero dute. Bitartean, Foru plazan egongo da ikusgai. Arratsaldean, berriz, *Euskal Herria Aro modernoaren hasieran* mahai ingurua izan zen, eta, Zine Klub elkartearen eskutik, *La guerra civil en Euskadi* eta *Zerutik suadator* filmak ikusi ahal izan zuten.

«Gernikatuak»

Gernika behin eta berriz erraustu dutela gogora ekarri zuten atzo. «Hainbat izan baitira Gernikatuak izan diren herriak», azaldu zuen Xabier Jauregizarrek. «Zer da Gernikatuak, ez bada erraustua, sarraskitua, ukatua, isilarazia, gutxiagotua, zapaldua?».

Aurtengo urteurrena testuin-

guru berezi batean dagoen heinean testuinguru horrek sorrarazi dituen «baldintzak indartu, egonkortu eta optimizatu» egin behar direla uste dute Gernika 1937-2012 taldearen sustatzaileek, «herrien erabakitze eskubideak nazioarteko agenda politikoan zentralitatea irabaz dezan».

Bada, elkarlanaren fruitua den egitarau bat dakar egunotarako Gernika 1937-2012k: «herritarra eta parte hartzailea, aldarrikapen politikoekin batera kultur jarduera ugari eskaintzen ditue-

Gernika behin eta berriz erraustu dutela gogora ekarri zuten atzo

na». Gaur bertan, adibidez, *Gernikako bonbardaketa: Historia, Oroimena, Eztabaida* mahai ingurua izango da 18:00etan Elai Alai aretoan. Iñaki Egaña eta Iñaki Goiogana historialari eta ikerlariak izango dira hizlariak. 20:00etan, berriz, *Zeruari kea* emanaldia izango da Merkatu plazan. Zine Klubaren eskutik, *Ikuska 3* eta *Aterpe barik* filmak ikusteko aukera egongo da.